

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak EAEko Auzitegi Nagusiari eskatu dio Gipuzkoa behartu dezala Nafarroa beren turismo-seinaleetatik kentzera

*Jakin ahal izan duenez, gutxienez beste hiru karteletan agertzen da Nafarroako ezkutua*

Miércoles, 06 de mayo de 2015

Nafarroako Gobernuak EAEko Auzitegi Nagusiari eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundia behartu dezala, lurralde horretan Foru Komunitatea agertzen den irudi guztiak errepideko kartel guztietatik kentzera edo ezkutatzera, eta ez soilik A-15 autobian daudenak.

Foru Gobernuak jakin ahal izan duenez, gutxienez ezaugarri horietako bost seinale daude, eta haietan Nafarroako turismoaren ikuspegitik erakargarriak diren lekuen ikurrak agertzen dira, esaterako: Plazaolako bidea, Aralar eta Iruñeko Zitutadela; haiek guztiak "Euskal Herria-Basque Country" izen generikoarekin. A-15ean bi daude (Andoain eta Berastegi artean), eta bertako irudiak estali egin dira Auzitegiak agindutakoari jarraiki, bai eta jatorrizko diseinuarekin segitzen duten beste hiru ere (Nafarroako ezkutua ikus daitezke bertan): bi N-I errepidean (Madril-Irun), Alegian eta Ikaztegiatan, eta beste bat AP-8an (Bilbo-Irun), Oiartzun eta Astigarraga artean.

EAEko Auzitegi Nagusiak, hain zuzen, Aldundiak auzitegiaren epaiaren aurkako berraztertze errekurtsoa ezetsi du. Epai horrek seinale horiek kentzeko edo ezkutatzeko agintzen zuen kautelazko neurri modura gai nagusia erabakitzen den bitartean. Auzitegiaren epaian esandakoaren arabera, Gipuzkoako ordezkariak erabilitako argudioak bere garaian jadanik azaldutakoen "errepikatze laburtua" dira Foru Komunitateak norabide horretan egindako eskaeraren aurrean.

Gogoratuko denez, iragan otsailaren 24an, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salak [auto](#) bat eman zuen. Haren bidez, Nafarroako Foru Komunitateak hala eskatuta, kartelak kentzeko kautelazko neurria eman zen, "alboko komunitateko ezkutuarien sartzeko desegokia" egiten dutela irizten baita, eta "Foru Komunitateko tokiak 'Euskal Herria-Basque Country' hitzekin aipatzeagatik". Autoak gaineratzen zuenez, neurriaren eraginkortasuna "eskatzaileak proposatutako edozein



AP-8an dagoen seinalea, Oiartzun eta Astigarraga artean.

baliabiderekkin beteko da (desmuntatzea, ezabatzea...), baldin eta prozesuan eztabaida pizten duten bereizgarri nahiz elementuak behin-behinekoz kenduko direla bermatzen badute".

### Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

Kautelazko neurri horren eskaera Nafarroako Gobernuak iragan abenduan kartelen aurka jarritako [administrazioarekiko auzi-errekurtso](#)aren barnean zegoen, ekintza horiek "Nafarroako identitatea kontuan hartzen ez dutelako; identitate hori Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko 13/1982 Lege Organikoan aitortzen da, eta aipatutako ekintzek bertako erakundeen eskumenak ez dituzte ezagutzen eta leialtasun konstituzionalaren printzipioa ez dute errespetatzen".

Gobernuak bere errekurtsoan zioen, gainera, kartelek Estatuko eskumenak urratzen dituztela errepideak seinaleztatzeko arloan eta, alde horretatik, gogora ekarri zuen Konstituzio Auzitegiak jadanik emandako 94/1985 epaiak lege kanpokoak izan zirela Eusko Jaurlaritzak Nafarroako ezkutua erabiltzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuaren iritziz, seinaleak "lege kanpo eta konstituzioaren aurka" egiten dute, eta, horrez gain, Nafarroako errealitate instituzionalean eta bertako foru-araubidean eskua sartzen dela irizten du.

Aurrez, azaroan, seinaleak zeudela jakin ondoren, Nafarroako Gobernuak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera egin zion berehala ken zitzan; gertaera hori "Nafarroako erakundeetan muturra sartze larritzat jotzen zuen eta erakunde horiekiko errespetu falta handia", bai eta "Nafarroari egindako probokazio argia ere, demokratikoki hautatutako erakundeekiko errespetua galduz eta baita herritarren gehieneko ahotsarekiko ere".



N-1 errepideko kartela.